

# Hamatarpi

2016ko udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala



— 'EHIZTARI HARROPUTZEN APUSTUA'

— ABADELAUETA ELKARTE ETNOGRAFIKOA

— GORBEIA INGURUKO ZALDIEN XXI. ERAKUSTALDIA

— HITZALDI ZIKLOA: KLIMA ALDAKETA EZTABAIDAIGAI

— ARTURO FERNANDEZ DE LARRINOARI, GOPEGIKO HERRITARRARI, ELKARRIZKETA

— ZIGOITITIK SIRIARA EKIMEN SOLIDARIOAK LAGUNTZAZ BETETAKO 18 PALET JASO DITU

## Hasteko...



### 04 Zigoitik Siriara ekimen solidarioa

17 herri eta erronka bakarra: Siri laguntzea



### 11 Gorbeia Inguruko Zaldien XXI. erakustaldia

Ekainaren 26an egingo da Zigoitiko abere azoka

## Hemen eta orain



### 06 Elkarrizketa

Arturo Fernandez de Larrinoa, Gopegiko herritarra



### 12 ZIGOITIARRAK, Isidro Saenz de Urturiren eskutik

'Ehiztari harroputzen apustua'



### 08 Klima aldaketa eztabaidaigai

Hitzaldi zikloa Unai Pascualekin, Paul Nicholsonekin...



### 13 Abadelaueta Elkarte Etnografikoa

Udalerriaz eta bertako jendeaz gehien dakitenak



### 10 Eguneko Arretarako Landa Zentroko kolaborazioa

ATAL BERRIA!



## Liburutegitik, maitasunez

### 14 Javier Arbuluren kolaborazioa

Zigoitiko neskato eta mutikoen erresuma

## Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2016ko udaberria

**Azaleko argazkia:** *Zigoitik Siriara*. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



## Trafiko lege berria eta ehiza barrutiak

## Ehiza barruti batean animaliaaren bat harrapatuz gero, arduraduna kotxe gidaria

2014ko apirilaren 7ko 6/2014 Trafiko Legearen aldaketarekin, ehiza-barruti baten barruan animalia bat harrapatuz gero, arduradun bakarra ibilgailua gidatzen duena da. Arau orokorra da hori, salbuespenak badauden arren: istripua ehiza kolektiboaren ondorioz gertatu bada, ezbeharrak aurrez ikusitako epe barruan konpondu gabeko hesi baten ondorioa izan bada, edo bideak animalia askeen presentziak zuzenki ez bazuen ohartarazten. Kasu horietan, kalteen arduraduna barrutiko titularra edo, arduradunik ezean, lurraren jabea izango da (Lege aldaketa baino lehen kasu guztietan gertatzen zen bezala).

Aseguratzailen gehiengoak horrelako arrisku-estaldura espezifikoak eskaintzen dituzte

jada. Nolanahi ere, gomendagarria da gure konpainiak gertakari-mota hori gure polizan sartzen duela egiaztatzea. Izan ere, komeni da gogoraraztea aseguratzaileak horrelako kalteen aurrean erantzun ahal izateko, istripuan parte hartu duen autoritatearen argiketa aurkeztu behar dugula.

Zigoitian erraza da basurde, orkatz edota oreinak aurkitzea Zaitegitik Murgiera doan errepidean (A-3600ean), Apodaka-Gopegi-Ollerietan bidean (A-3608an) eta Gopegitik Murgiera doanean (A-3610ean). Eta baita asfaltatutako nekazaritza-bideetan (lursailetan) ere. Une arriskutsuenak arratsa eta gaua dira, eta ezbehar-kopuru handieneko urtarok, berriz, udaberria eta udazkena.

#### KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

(lehenengo epea, kuotaren %50)

2016-09-01 \_ 2016-10-31

(bigarren epea, kuotaren % 50)

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren %50) ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50)

urriaren hasieran

#### ZABOR BILKETAREN TASA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Ekainaren hasieran

#### ABELTZAINZA-KANONA

##### Borondatezko epea:

2016-06-01 \_ 2016-07-31

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Uztailaren hasieran

#### LANDA HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2016-05-01 \_ 2016-06-30

(lehenengo epea, kuotaren %50)

2016-09-01 \_ 2016-10-31

(bigarren epea, kuotaren % 50)

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren %50) ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50)

urriaren hasieran

#### LANDAK

##### Borondatezko epea:

2016-06-01 \_ 2016-07-31

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Uztailaren hasieran

## 2016ko Zergadunen egutegia

#### ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

#### INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

#### Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

**Ordaintzeko lekuak:** Kutxabank eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitikoudala.eus](http://www.zigoitikoudala.eus) (Nire ordainketa).

#### Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatutako du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

Zigoitik Siriara ekimen solidarioak laguntzaz betetako 18 palet jaso ditu

## 17 herri eta erronka bakarra: Siria laguntzea



Ondategitik Damaskora, Siriako hiriburura, 4.779 kilometroko distantzia dago. Ibilbide itzela; edozeinek pentsatzeko modukoa Siriako herria laguntzeko aukerarik ez dugula. 'Bestalde, seguru laguntza bidean galduko dela, edozeinek esan lezake.

Baina Zigoitiko herritar batzuek, edozein ez direnak, eta jende arrunta ere ez direnak, dudarik gabe, alde itzel hori solidaritatearen bidetik laburtzea erabaki dute.

Ideiari buelta pare bat eman ondoren, *Siriako Herria Laguntzeko Elkartearekin* jarri ziren harremanetan betebeharrak guztiak betetzen laguntzeko. Jarraian, *Zigoitik Siriara* facebook orria ireki zuten, komunitate birtualera zabaltzeko udalerriko hainbat txokotan hitz egin zutena: 'Siriako herriak bizi duen egoeraren aurrean, Zigoitiko herritarrak antolatu gara. 17 herri txiki, erronka bakarra: ahalik eta elikagai, tapaki, osasun-material gehien Siriara bidaltzea. Gure lehen helburua: hiru palet osatzea. Gure hurrengo helburua: beste hiru. Horrela, beharrezkoa ez izan arte.'

Haraneko herri guztien, hainbat elkarte eta talderen laguntzari esker, bi hilabete baino gutxiagoan hasierako 3 palet horiek betetzea lortu dute. Eta baita beste 15 ere! Guztira, 18 palet bildu dituzte. 'Herritarren erantzuna izugarria izan da. Gure herriaz eta Zigoitiak adierazi duen solidaritateaz harro gaude. Gainera, esan behar

dugu hau izan dela Euskal Herrian antolatu den kanpainarik handiena, emaitzei begira, kontatu digute antolatzaileek.

SEUR enpresaren elkarlanarekin, materiala Madrilera bidali dute eta hortik Valentziara. Handik Turkiako portu batera helduko da eta segidan bere bidea jarraituko du, azkeneko helburura arte. 'Laguntza humanitarioa edukiontzietan kargatzen dugunean - idatzi du bere facebooken *Siriako Herria Laguntzeko Elkarteak* -, Madril ez da Siriako bide luze eta arriskutsuaren hasiera baino. Behin Turkiako muga zeharkatuta, bertako kolaboratzaileek egin behar dute lanik zailena: material banaketa, arriskuez betetako ibilbideen artean, herriak bizi duen kaos eta segurtasun faltako egoeraren ondorioz. (...) Bonbardaketa berri bakoitzaren ondoren, gure pentsamendu guztiak daude heroi anonimoen karabana horiekin, xaboa bezalako hain oinarrizkoak eta beharrezkoak diren artikuluak banatzeko bizia arriskuan jartzen duten guztiekin. Zorte on...'

Bitartean, hemen, *Zigoitik Siriara* taldeak guda salatu nahi du; 5 urte baino gehiago irauten duen eta egunero hamaika pertsona errugaberen sufrimendua sortzen duen guda. Eta amets egiten jarraituko dute (ahopean, ea betetzen den), Siriako guda amaitzen den egunarekin; guda bat, guztiak bezalakoa, non beti berberak galtzen duten eta beti berberak irabazten duten.



Ezkerretik eskubira eta goitik behera: Alepoko bonbardaketen aurkako protesta, lehenengo jasoerak eta Zigoitiko Ekonomatoaren pintxo-pote solidarioa.



Zigoitik Siriara taldearen lehenengo bilera, udalerriko talde guztiekin.

### Idea:

'Familiako bazkari batean bururatu ziztaigun' kontatu digu, naturaltasun osoz, Ainhoa Fernandezek, Ondategiko herritarrak eta ekimenaren bultzatzaile nagusiak. Fernandez familiaren berotasunak onarpen zabala izan du udalerrri guztian. Ez da harritzekoa, esan digu Ainhoek. 'Egia esan, erantzunak ez gaitu ustekabeen harrapatu, ondo baitakigu Zigoitia herri solidarioa dela eta harro gaude gure harri-koskorra munduko edozein punturaino iritsi ahal delako. Zigoitik espero dugu gure laguntza partekatu ahal izatea, behar den lekuan. Mila esker zigoitiarrak eta horrela jarraitu! Izan ere, asmoa da udazkenean beste kanpaina bat martxan jartzea. Orduan emango diete informazioa Zigoitiko herritar guztiei.

### Info gehiagorako:

[www.facebook.com/zigoitik.siriara](http://www.facebook.com/zigoitik.siriara)

[www.facebook.com/AsociacionAAPS](http://www.facebook.com/AsociacionAAPS)

Arturo Fernandez de Larrinoa, Gopegiko herritarra

## 'Jendea laguntzea maite dut. Asebeteta sentitzen naiz'



'Toki hau oso berezia da niretzako', esaten digu Arturok auto istripuan bere laguna zen Piti eta beste bi gazte hil ziren oroitarran.

### - Zer moduz, Arturo?

Ondo esan beharko!

### - Nolako da zure egunerokotasuna, Arturo?

Astelehen, ostegun eta ostiraletan Gasteizen UNED alboan dagoen APZra, Autonomia Pertsonaleko Zentrora noa. Asteartetan gimnasia, errehabilitazioa egitera. Asteazkenak aisialdirako.

### - Eta zer egiten duzu APZn?

Jarduerak ditugu, baina nik ez dudanez jarraitasunik ezertan, enkarguak egitera bidaltzen naute; otarrainxkak erostera, esaterako.

### - Zergatik diozu ez zarela konstantea?

Edozer gauzarekin gogogabetzen naizelako, asko kostatzen zait. Gaur lur jota jaiki naiz eta ezin izan dut. Ikusi izan bazenu goizean amak egindako errieta... Nik ulertzen dut. Baina ezin dut. Beste pertsona batzuekin oso ondo nabil, egunero zentrora joatea gustuko izango nuke, baina gogoia izatea falta zait.

Udalerriko datuen arabera, Zigoitian urritasuna duten 71 lagun daude. Biztanleriaren %4,10. Komunikabideok gutxitan hitz egiten dugu haiei buruz. Nahiz eta, azkeneko urteotan, ageriagoak egin diren gure gizartearen; urritasunak tabu izaera duen gai bat izateari utzi dio, hala ere, naturaltasunez tratatzen urrun gaude oraindik. Gure bizilagunetako bat sakonago ezagutu nahi izan dugu: Arturo Fernandez de Larrinoa. 50 urte dituen mutikoa, 'betidanik Gopegikoa', mendizalea eta eskizalea. 'Ondo nengoenean, eskiatzea maite nuen. Baina ez nintzen aditua, kolpe ederrak hartu ditut!' gogoratzen du. Garai hartatik, *Mairuko* jaialdiak txeraz gordetzen ditu, 'muntaketa eta desmuntaketara joaten ginen, a zer nolako lana!'; eta bere lan urteak '20 urtez behi, hondeatze makina, traktore... artean ibili naiz. Munduko toki okerrenetan ibiliak gara, oso makurrak diren mendi magaletan. Gero eta zailagoak, gero eta ederragoak'.

### - Min fisikorik duzu?

Ez ba! Bat ere ez. Ez dut inolako minik. Dena buruarena da. Burua da nagusia.

Arturok kontatu digu nola duela hamabi urte *hidrozefalia* bat atzeman zioten. 'Lagun batekin eskiatzen, ondo ez nabilela ikusi ninduen, ezin nuen bi aldeetara joan, beheara soilik. Berak Erresonantzia Magnetikoan egiten zuen lan eta aztertu behar ninduela esan zidan. Hor ikusi zen guztia. Buruan lau alditan egin dizkidate ebakuntzak. Balbula bat dut sartuta, urdaileraino iristen den hodi bat... Jaiotzetik dut. Baina lehen ez zizuten ezer begiratzen. Ipurdian zaplastako bat eman eta segi korrika! Gainera gibela gaizki dut. Horregatik nabil hain makur. Hasieran transplantea egitea pentsatu zuten, baina pastillak direla eta mantendu egin dut. Medikuntzak bere alde onak ditu!' barre egiten du. Ebakuntzak direla eta, Arturok aulki gurgildun bat erabili behar du. Lehenbizi Lezan egon zen eta ondoren Larderon (Errioxan), Urritasun fisikoa dutenen Errehabilitazio Zentroan.



Bengolarra tabernan Arturo gazteenekin solasten da, eta, hala suertatzen bada, zaharren partidaren geratzen da.

### - Nola tratatu zaituzte medikuek?

Larderora gurgildun aulki batean joan nintzen eta oinez atera nintzen. Eta hori fisioterapeuta onenak Lezan zeudela. Beti izan dut jende bikaina. Aukeratzen ibilita ere ez ziren hobeak izango. Guztien zerrenda egingo dizut? (txantxa egiten du). Hobe ezetz, baten bat ahaztuz gero iskanbila bat sor dezaket.

### - Orain ederki zabilta oinez. Zer nolako aurrerapausoa!

Oso ona, bai. Baina nik burua konpondu nahiko nuke. Lehen psikiatra nuen, Oliveros, pertsona ezin hobea. Asko lagundu ninduen. "Zu, buru makur zaudenean, gogo gabe, hemendik hartu (jertsea eusten du) eta gora bota!" Oso ondo egiten zuen. Nik gogoia da behar dudana. Baina jubilatuta zen; Lan egiten jarraitzeko gogoia zuen baina ez zioten utzi.

### - Bide batez, nola ikusten duzu mundua? Ze iritzi sortzen dizu bizi garen gizarteak?

Hankaz gora dago guztia. Guztiok agindu nahi dugu, dena guretzako izateko. Berekoikeria besterik ez da.

### - Uste duzu urritasuna duten pertsonak ondo tratatzen dituztela?

Ez, ez!. Gasteizeko batzuk ahoa itxirik edukiko balute, askoz hobe egongo nintzateke! Ni edonor

laguntzen nabil beti; maite dut, asebeta egiten nau. Gurgildun aulki batean ikusten badut norbait, edo itsu bat, gurutzatzen laguntzen diot. Baina ez dut hori ikusten, aurkakoa baizik. Eta ezin dut aguantatu. Norbaitek beste bat gaizki tratatzen duenean, esaten diet hori ez dela egin behar. Ezin direla pertsonak horrela tratatu! Zerbait geratuko zaie. Ni lasaiago geratzen naiz, noski.

### - Eta hemen, ondo tratatua sentitzen al zara?

Bai! Jendea oso jatorra da nirekin, oso adeitsuak. Denek esaten didate 'Aupa, Arturo, Animo!'. Ezagutzen nautelako dela deritzot nik. Hemen ezagutzen zaituzte, baina Gasteizen bakoitza berera doa.

### - Zure gurasoekin bizi zara.

Bai. Nahiz eta pisu bat dudana. Baina ezin naiz bakarrik bizi. Faltan dut konpainia. Familia da garrantzitsua niretzako. Gurasoak, anaia, nire ezkonarreba, nire iloba... Asko lagundu didate.

- Eta zer moduz lagunak? Bikoterik ba al duzu?

Lagunekin, ni asko nekatzen naizenez eta ezin ditudanez jarraitu, azkenean elkar ikusteari uzten diozu. Bizi legea da. Eta nigatik dena eman duten lagunak izan ditut! Orain bisitak egiten jarraitzen dute, baina desberdina da. Nik guztiz ulertzen dut. Ez dut neskalagunik. Eta ez dut nahi, oso zaila da ni aguantatzea. Baina ezustekoren bat izan dezakegu!

Zigoitiko Zentro Soziokulturaleko hitzaldi zikloa

## Klima aldaketa eztabaidagai



Klima aldaketa hemen dago; inor ukatzera ausartzen ez den errealitate bat. Eta Lurrak aurre egin behar duen arazo handienetakoa. Oraindik ere posible da geldiaraztea, eta horretarako informatzea ezinbestekoa da. Zertan datza? Zer nolako ondorioak ekar ditzake? Nola aurre egin? Horrelako galderak eta beste hainbeste erantzuten saiatzeko asmoz Zigoitiko Udalak, Tokiko Agenda XXI.en laguntzarekin, ingurumeneko aditu nagusiekin hitzaldi ziklo bat antolatu du. Zigoitiko Zentro Soziokulturetik pasa dira Wilson Serrano, Juan Eduardo Iriondo eta Iñaki Antiguedad. Eta datozen egunetan gauza bera egingo dute Unai Pascualek eta Paul Nicholsonek. Hemen kontatuko dizugu nortzuk diren eta zer esan duten, edo esan behar duten gai honi buruz.



**Ekainaren 16an, 19:00etan**

### Elikadura eredu globalizatua eta klima aldaketa

**PAUL NICHOLSON**ekin, ENHE landa sindikatuko eta Vía Campesina elkarteko kidearekin

Nicholson familiako nekazaritzaren alde dago. Nekazari bezala, ahotsa ematen die bi hemisferioetan lurra lantzen duten eta beren elikadurarako eskubidea errespetatzen duen nekazaritza-ekoizpeneko eredu defentitzen duten gizon eta emakumeei. 'Egungo elikadura eredu agroindustrial sistema globalizatu batean oinarrituta dago eta horrek eragin handia dauka klima aldaketaren garapenean. Elikagaien ekoizpenaren deslokalizazioak, ekoizpen prozesuak, garraioak edota gure eguneroko ohitura edo joerek, gure planetaren tenperaturaren igoera eragiten dute. Hala ere, nekazaritza ekologikoaren ikuspegitik, alternatibak eraikitze gaitasuna dagoela uste dugu, elikadura eredu logikoago, justuago eta jasangarriago batean oinarriturik.



**Ekainaren 30ean, 19:00etan**

### Parisetik Euskal Herrira: klima desafioak

**UNAI PASCUAL**ekin. Gopegin bizi den gasteiztarra. Klima eta bioaniztasun gaietan aditua. Ekonomian lizentziatua eta York Unibertsitatean (Ingalaterra) Ekonomia Ekologikoan Masterra eta Doktoretza egin zuen. Manchester eta Cambridgeko irakasle ohia. 15 urte Ingalaterran pasa eta gero, gaur, Ikerbasque Fundazioko ikerlaria da eta Basque Centre for Climate Change ikerketa zentroan ari da lanean (BC3).

Bere mintzaldian, Paskualen hitzetan, 'klima aldaketak dakartzan erronkak izango ditugu hizpide hitzaldi-eztabaidan. Jendearen parte hartzearekin aurretik izandako hitzaldien ildotik joan eta Pariseko Klimaren Goi-bilera eta Euskal Herriko lurraren eta energia ereduaren kudeaketa aztertuko ditugu elkarrekin. Zigoitiarrok zein paper jokatu dezakegu erronka hauen inguruan? Zer egiteko prest gaude? Noraino heldu gaitzake? Etorri zaitezte eztabaidan parte hartzera!'



**Etebizitzetako eraginkortasun energetikoa** izan zen mintzagai, apirilean, **WILSON SERRANO**k eta **JUAN EDUARDO IRIONDO**k eskaini zuten topaketan. Lehenengoa ERAIKEN-Eraginkortasun Energetikoan eta Eguzki-Instalazio Termikoetan Goi-Mailako Teknikarien Goi Mailako Gradu ikaslea da. Bigarrena, ERAIKEN CIFP Eraikuntza LHIL-Eraginkortasun Energetikoko Departamentuko eta Eguzki-Instalazio Termikoetako arduraduna. Beren hitzaldian agerian utzi zuten nola lotu dugun gure ongizate maila kontsumo energetiko gero eta altuagoekin. Eta hori konpontzeko gutxi egin dezakegula pentsatzeko joera orokorraren aurka azaldu zuten zer den, gure etxebizitzetan, kontsumo energetiko eraginkor eta arduratsua, etxe-kontsumoa optimizatzeko gakoak eman zituzten eta gehiegizko gastuak saihestearen garrantzia azaldu zuten.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile **IÑAKI ANTIGUEDAD**ek defendatu zuen, maiatzean, '**aldaketek trantsizioa behar dutela eta trantsizioek aldeko baldintzak**'.

Antiguedadek, Ur-geologian katedradunak eta Ur-Ingurugiroko Prozesuetako Ikerketa Taldeko arduradunak, esan zuen krisi asko eta askotarikoak bizi ditugun garai honetan badugula 'zer birpentsatu; honetaz eta hartaz baina, batez ere, transbertsalitateaz. Eta bide horretan kliman sortu dugun krisiak aukera paregabea eskaintzen digu behingoz zentzudun izan gaitzen. Kontua ez da betiko galderei bestelako erantzunak ematea; guk bestelako galderak egin eta guk geuk erantzutea da kontua. Egunez egun eta lekuz leku.'

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroko informazioa (Kolaborazio berria!)

## Eguneko Arretarako Zentroko *Paziente Bizia* Programa. Autozainketan heziketa



Adineko pertsonak oso garrantzitsuak dira gure gizartean. Hasteko, gu ez ginen hemen egongo haiengatik ez balitz. Bizitza urteak metatzen dituzte eta, hori dela eta, baita bizipenak, gizatasuna eta gaitasunak ere. Haien ahotsa oinarrizkoa da gure iragan hurbilena ezagutzeko. Nondik gatozen. Hori guztia kontuan hartuta, HAMAZAZPIN eta erabiltzaileen eta Zigoitiko EALZ (Eguneko Arretarako Landa Zentroa) profesionalen inizatibarekin, sail berri bat irekitzen dugu non beren egunerokotasuna jasotzeko aukera izango dugun: Zentroko jarduerak, antolatzen dituzten programak, haiek parte hartzen duten ekimen desberdinak... Oraingo honetan '*Paziente Biziaz*' jardungo dugu.

### Zer da *Paziente Bizia* Programa (PBP)?

Autozainketan hezteko programa bat da; honen bitartez, gaitz kronikoak edo bestelakoak zaintzen dituzten pertsonen, gaixotasuna ezagutzea eta osasun maila on bat izatea uztartzen dituzten jokoak irakasten zaizkie. Kurtso hauetako ezaugarri interesgarrietako bat, gaitz kronikoak bizi dituzten pertsonen (pazienteak edo zaintzaileak) ematen dituztela da.

Proiektuaren xede nagusia da gaixotasuna ulertzea, haien osasunaz jabe egitea eta honen gainean erabaki egokiak hartzen laguntzen edo ahalduntzen duten tresnak garatzea.

### Gako eta aholku praktikoak

EALZ-ko erabiltzaileek 'interesgarri eta oso praktikotzat' jotzen dituzten kurtsoetatik hainbat ideia ondorioztatu ditzakegu gure egunerokotasunerako. Hauen artean, erostera goazenean **produktuen etiketak irakurtzearen** garrantzia, jakiteko ze osagai dituzten: **aurretik prestatutako** elikagaiek **gatz eta azukre kopuru handia** dute eta beraz elikagai freskoak ahal den neurrian jatea duen garrantzia. Azkenik, **ze botika hartzen duten** jakitea: zertarako balio duen, nola kontrolatu hartzen dena, eta jakitea hainbat botikak, beste batzuekin batera, eragin txarra izan dezaketela, eta, beraz, automedikazioaren ondorio txarrez ohartaraztea.

Ekainaren 26an egingo da Zigoitiko abere azoka

## Gorbeia Inguruko Zaldien XXI. erakustaldia

Aurten ikusgai ugari dituen programarekin: besteak beste, abere erakusketa, artisautza azoka, oztopo lehiaketa, pottokekin ibilaldiak, Oketa Dantza Taldearen emanaldia eta moxal jana

Udalerriko 17 herrietako bizilagunen topagunea da; bizitza osoan abereekin aritu den edadeko jendearena; azoka bat ere galtzen ez dutenena eta baita animaliak hurbiletik ikusten eta pottoka baten gainean ibiltzen, ezin hobe pasatzen duten umeena ere!

Ekaineko azken igandeko hitzorduarekin beti leial, Gorbeia Inguruko Zaldien Erakusketaren hogeitabatgarren edizioa egingo da aurten eta, beti bezala, jardueraz betetako programa eskainiko du. 26an, igandean, goizeko 10:00etatik aurrera, Sarragoako landetan ohiko zaldi abereen erakustaldiaz gain, abelgorriak, ardiak eta ahuntzak egongo dira. Guztira, Zigoitiko dozena bat abeltzainen ia ehun abelburu egongo dira, Zuiako hainbat herritarrek arriko dituztenez gain. Animaliekin batera, udalerriko eta Zuiako Kuadrillako gainontzeko udalerrietako profesionalak egindako eskulanak egongo dira.

### Dantza eta kirola

Jardueren programari dagokionez, oztopo lasterketa bat, pottokekin ibilaldiak eta horseball (saskibaloia, rugby eta poloaren arteko nahasketa) erakustaldi bat egongo da. Horretaz gain, Oketa Dantza Taldearen eskutik euskal dantzen saio bat, fanfarrea goiza animatzeko eta, jakina, moxal jana egongo dira.

Azoka Zigoitiko Udalak antolatzen du Ondategiko Administrazio Batzarrarekin eta haraneko 4 hipika klubekin elkarlanean, eta finkatutako hitzordu bat da: iaz 4.000 pertsona baino gehiago batu zituen. Arrakastaren arrazoiak? Besteak beste zelaien zabalera eta hariztiak eskaintzen dituen itzalak. Hori eta, urtez urte, azoka posible egiteko 40 lagun baina gehiago profesionaltasuna eta lana.



Isidro Saenz de Urturiren eskutik

## Ehiztari harroputzen apustua



Ondategiko Casildaren tabernara, ehiza garaian, beren burua azkartzat zeukaten bi ehiztari etorri ohi ziren. Denbora-tarte batean egin zezaketen kilometro kopuruaz aritzen ziren, etengabe. Tabernako bezeroak kokoteraino zeuden eta egun batean eskarmentua ematea erabaki zuten. Apustua egin zuten: Casildaren etxetik irten eta Maritxuren etxera (Gopegira) joan behar zuten, han ostikada eman salmahaiari oinarekin, eta Ondategiko tabernara itzuli. Azkarrenak irabazten zuen. Kanpotarrek apustua onartu zuten, eta bakoitzak 5 pezeta jarri zituen. Irteera eman zuten, eta ehiztariak ziztu bizian atera ziren; bi zigoitiarrak, berriz, lasai lasai abiatu ziren.

Hauk Gopegira iristen ari zirenean, ehiztariak bueltan zeuden jada eta beraiei barre eginez gainera. Zigoitiarrak Maritxuren etxera iritsi ondoren, oinustu egin ziren, salmahaia oinarekin ukitu zuten eta lasai itzuli ziren Ondategira. Ehiztariak iseka egiten zieten itxaroten zuten bitartean. Guztiak elkartu zirenean, epaileen papera jokatzeko zutenek 'Galdu egin duzue' esan zieten. 'Zer ba? Ezin da izan!' erantzuten zuten ehiztariak. 'Apustua salmahaia oinarekin ukitzea zen eta zuek zapatarekin egin duzue', azaldu zuten epaileek. Haserreaz gain, guztion barreei eutsi behar izan zieten, batez ere partida jolasten ari ziren aititenak. Ez barre egin baserritarrei, gerora zuri egingo dizute barre eta.



### ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek'.

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udallerrian egin duen lanari esker, hemen *Zigoitiarrak* saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.

### ABADELAUETA ELKARTE ETNOGRAFIKOA

## Zigoitiaz eta bertako jendeaz gehien dakitenak



9 urte daramatzate gure herrietako ohiturak, errituak, tokiak eta erremintak aztertzen. Etnografiarekiko beren pasioari zor diogu Zigoitiko ermita guztien (gaur egungoen eta desagertuen) katalogazioa; gerra zibileko Etxaguengo hobien aurkitze eta berreskuratzea, Aranzadi elkartearen zuzendaritzapean; eta erretirodun maisu eta andereñoi duela urte batzuk egindako omenaldia, besteak beste. Ez lana, ez inspirazioa ere, ez zaizkie bukatzen. 2016an gure haraneko leku bereziak biltzen ari dira. Zigoitia udalerrria eta bere jendeaz gehien dakien taldearekin hitz egin dugu.

#### - Zer da eta noiz jaio zen ABADELAUETA?

*Abadelaueta* Elkarte Etnografikoan Zigoitiko ondare historiko, kultural eta etnografikoaren ikerketari, dibulgazioari eta kontserbazioari ekiten diogu. Gure izena Etxaguengo Oketa mendiko toponimo batetik hartuta dago. 2008an talde bezala antolatu ginen Javier Goikoetxea, Fernando Garcia de Cortazar, Jesus Bañares Aizpuru eta Felix Placer Ugarteren ekimenari esker. Orduan eta orain, elkartearen helburua da gure ondarea balioesteko beharra bultzatzea, bere ezaguera hedatzea eta bere errekuperazioa sustatzea. Eta baita Akelarrea aldizkaria editatzea ere; Zigoitiko Udalaren laguntzarekin 7 ale argitaratu ditugu jada.

#### - Zenbat zarete eta nola funtzionatzen duzue?

Gaur egun hamar bazkide gara eta kolaboratzaile ugari ditugu lan puntualetarako. Zuzendaritza Batzordeak bilerak deitzen ditu eta horietan erabakitzen dira helburuak eta ekintzak. Esate baterako, ikerketa lanak edota

udalerrria eta bere lekuri garrantzitsuenak, ikuspuntu etnografiko batetik, ezagutzeko antolatzen ditugun publiko guztiarentzako irteerak. Izan ere, Aldizkaria egiten dugu eta Zigoitiko kultur bizitzan laguntzen dugu.

#### - Proiektu berririk eskuartean?

Azken jarduera izan da karobiak aurkitzea, eta Muruako errotaren inguruan dagoena berreskuratzea eta seinaleztatzea. Angel Martinez Montecelok, Foru Aldundiko Arkeologia, Ondare eta Lurraldearen Kabineteko irakasleak, zuzendu ditu lanak. Eta 2016an Zigoitiko leku bereziak lokalizatzen eta deskribatzen ari gara.

**Info+:** *Abadelaueta* irekita dago bere jardueretan parte hartu nahi duten eta Zigoitiko herritarra den edo udalerriarekin erlazionatuta dagoen pertsona guztientzako.

[abadelaueta@gmail.com](mailto:abadelaueta@gmail.com) · T\_685 78 09 33

Gorbeia Eskolak liburutegiari egin dio bisita. Eta liburu-zaintzaileari ere bai.

## Zigoitiko neskato eta mutikoen erresuma



Testu eta argazkien hautaketa: **Javier Arbulu.**

'Konturatzan naiz, izan nintzen umeak, zauritzeko zein maitatzeko joera zuenak, zorte handia izan zuela. Suge eraztuneko ibai batean eta tximeleta dantzez osatutako ispilu baten gainean ibili nintzen. Baratzetan jolastu nuen, zeinetan haien zahartzaro sendoak fruituak ematen zituen. Seskadietan kukutu nintzen, haritzak bezain indartsuak eta txoriak bezain sentiberak ziren izakiengandik babestua nintzelarik. Mundu garbi hori aztarnarik utzi gabe hil zen. Motzondo erraustuak, lurzoru mugikorak, moldegabeko borrokak eta lagun isil honek gordetzen duen putzu txiki bateko ur urdina besterik ez zen geratu'. Dio Rene Char-rek *Txikitutako olerkian*.

Egia esatearren, ez dakit zein izango den Zigoitiko neskato eta mutikoen erresuma. Behartuta ikusten dudanaren azpian, zerbait gehiago dagoela pentsatu nahi dut. Batzuetan

topatzen ditudan gauza bakarrak 'teknologia' eta 'espektakulua' direlako.

Duela gutxi, *Gorbeia Eskola* oso-osoaren bisita izan genuen. Esperientzia bizia izan zen: Egunero bi talde, goiz bakoitzean 40 pertsona edo. Lehen hezkuntzako hainbat taldetan, mutikoen haien artean borroka egiten zuten kosta ala kosta erantzuteko, gaur egun merkatuan hainbeste kontutan hartzen den *jarrera proaktiboa* deritzogun horrekin. 'Mutikoen' diot, fenomeno hori hautemangarriagoa zelako mutilen artean neskatoen artean baino. Nesken taldeak atzealdean lotsatiki ipintzen ziren, mutiko taldeak lehen lerroak konkistatu eta erantzunak bereganatzen saiatzen ziren bitartean. Bisitetako batean, mutikoetako batek neska bat bultzatu zuen bere *lehtasunezko* posizioa mantentzearen.

Egia esatearren, ez dut uste gaztetxo hauek erantzukizun handirik dutenik. Ezta *Gorbeia Eskolako* irakasleek ere. *Espektakuluaren gizartearen* profezia zaharra aspalditik hemen dagoela uste dut, zoriotsuki gure artean bizitzen, eta mamirik gabeko ikuskizun horri lehiakortasun bortitz bat batu diogu. Batzuetan, ume horiek, erantzutea baino, haien buruak ikusgarri egin nahi zituztela eta ikuskizun horren bitartez taldearen gainetik kokatu nahi zutela zirudien.

Hala, XX. Mendeko iragarpenak espektakulua gure aisialdiko forma nagusizat eta lehiakortasun pozoitsua lan munduko ohiko egoeratzat hartzen bazuen, gaur egun susmoa dugu bi munduen arteko mugak desagertu eta arlo guztietan nahasturik agertzen direla. Haien presentzia nabarmentzea eta edozer kostata ere hautemangarri egitea bilatzen duten mutikoen, ez dute beti interesgarria den zerbait esateko eta, hala ere, behin adin batetara iritsita, oso ondo xurgatu dute ideia bat: garrantzitsuena ez da zerbait interesgarria esateko izatea, zerbait esatea baizik, horrek beti egiten gaituelako ikusgarriak, eta ikusgarritasun hori errealagoak eta boteretsuagoak izateko modu bat da.

### Entzutea, arreta, zaintza, iraunkortasuna...

Telebista saioetan ikusten diren pertsonaia artaburu horiek klaseetan eta lan postuetan infiltratzea lortu izan balute bezala: Izar ikaslea, izar youtuberra edo izar marketin zuzendaria, inolako ekarpenik egiteko ez dutenak, bizipen eta interes nahiko eskasak besterik ez, gainera, ez dut uste zoriotsuak egingo dituenik horrek. Baina ez dezagun telebista errudun bakartzat har. Zer irakasten ari garen pentsatzea izan liteke garrantzitsuena. Benetan irakasten dioguna, umeak nahiko zurrak baitira, eta duela nahikotxo soilik adibidearen bitartez ikastea erabaki baitute. Are gehiago, nork ikasi behar du nortaz? Neskatoek mutiko batzuen jarrerez edo alderantziz?

Azken finean, ez datza hau generoaren gainetik dauden balore batzuen defentsan? Posible ez dela esaten badidate, ez dagoela generoaren gainetik dagoen balorerik, ez genituzke defendatu beharko ohituraz femeninoarekin



loturik egon diren baloreak: Entzutea, arreta, zaintza, samurtasuna, iraunkortasuna, lasaitasuna? Tribuaren oinarrizko zutabe gisa aldarrikatu?

Zigoitiko liburu zaintzaileak ezin du sakonki 'berdintasunean' pentsatu. Zuen laguntza beharko luke. Hala ere, batzuetan ohartzen naiz badaudela hainbat bizipen sakonki bizi izan dituzten pertsonak eta maite dut horiek entzutea. Segituan ohartzen da bat, zeintzuk diren. Bizitzak emandako kokapenak haien ahotsa beste batzuen baino itxuraz baliotsuagoa dela pentsatzera garamatza.

Ohikoena pertsona isilak izatea da. Ez dute zeresan handirik, erabaki handiak hartzen diren mahaietatik at daude eta noski, ez dute telebistaren arreta erakartzen.

Hala ere, pertsona hauek dira, eta ez besteak, mundua birarazten dutenak. Ez dira merkatuetako iruzurtiak, 'ur urdineko putzu txikia' gordetzen duen 'Lagun isilaren' aurpegi desberdinaren antz handiagoa dute. Beste garai bateko pertsonak izango balira bezala, beste erresuma edo errepublika batzuk oraindik posible izango balira bezala.



# Udalekuak, irteerak, zinea Bengolarran... Iritsi da uda-garaia Zigoitia

Zigoitiko herritar askoren arabera, urteko garairik hoberena da. Hori dela eta, Udaleko Kultura saila ederki ahalegindu da guztien gusturako jarduerak antolatzen, aisialdia eta aire zabaleko ekintzak tartekatuz.

'Dibertilandia, egun bakoitzean abentura ezberdin bat ' programa esate baterako. Zertan datza? Ba, besteak beste eta uztaileen bukaerara arte, txikientzako Hitagu Antzerki-udalekuak, eta Udalekuak, 12 urtera arteko neska-mutilentzat. Gainera, uztaileen 26tik 29ra *Eguzki Jaiaren* Monografikoa egingo da: udalerriko kalejira eta pregoia prestatzeko

udako eskola.

Izan ere, aurtengo Zuiako *Kuadrillako Umeen Euskararen Eguna* Zigoitian izango da eta Trespondeko Santa Katalina lorategia ezagutzeko eta Dulantzi bisitatzeko txango bana egingo dira. Gainera, abuztuan *Festikale* izango da Zigoitia eta Zuian.

Programazioaren xehetasunak eskuratzeko [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus).

Eta HAMA ZAZPIko facebooken ere [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria/](https://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria/)

## Autobusen ordutegiak

### ZIGOITIA | GASTEIZ/ VITORIA

ZESTAFE	ONKOIZTA/COSTA	ETXAGUIEN	MURUA	LARRINDA	MANJURGA	GOPEGI	ERBE	BURLUAGA	BERRIKANO	APODAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEIA IBERKA- TARITZAGINEA / C. COMERCIAL	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORALES >>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:45	18:48	18:50	*	18:53	18:56	*	18:59	19:03	19:10	19:12	19:21
*	*	21:55	21:58	22:00	*	22:03	22:06	*	22:09	22:13	22:20	22:22	22:31
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
*	*	09:55	09:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

### 1

### GASTEIZ/ VITORIA | ZIGOITIA

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA IBERKA- TARITZAGINEA / C. COMERCIAL	ETXABARRI IBIÑA	APODAKA	BERRIKANO	BURLUAGA	ERBE	GOPEGI	MANJURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUIEN	ONKOIZTA/COSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORALES >>>>>													
07:35	07:44	07:46	07:53	07:57	*	08:00	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	09:23	09:27	*	09:30	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	14:03	14:07	*	14:10	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	15:33	15:37	*	15:40	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	18:18	18:22	*	18:25	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
21:10	21:19	21:21	21:28	21:32	*	21:35	21:38	*	21:41	21:43	21:46	*	*
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>													
09:10	09:19	09:21	09:28	09:32	*	09:35	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	12:18	12:22	*	12:25	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	15:28	15:32	*	15:35	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	21:33	21:37	*	21:40	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*

\* HURBILTZEA / ACERCAMIENTO